

IX. FERNANDO BUESA MINTEGIA

Terrorismoa: Biktimak eta hiltzaileak zineman eta literaturan

Literatura eta zinema dira gure gizarte ireki honetako erreferentzia narratibo garrantzitsuenak eta horregatik, Fundazioak arretaz aztertu nahi izan du nola tratatu den terrorismoaren fenomeno odoltsua eta nola landu diren terrorismoaren biktimak eta hiltzaileak gure sortzaile eta autoreek eratutako imajinarioan.

Terrorismoaren fenomenoak euskal eta espainiar gizarteak astindu ditu azken berrogeita hamar urteetan, asko izan direlarik hark utzitako zuzeneko biktimak, zaurituak, mehatxatuak eta mota askotariko ondorioak. Fundazioak hamar urte daramatza lanean, biktimen memoria -izuaren lekukotza hori- ez dadin lausotu axolagabekeriaren erdian, inork ez dezan bestaldera begiratu eta, are gutxiago, indarkeria legitimatu.

Biktimen memoria derrigor eman behar da ezagutzera gure gizartean eta guztion gogoan eduki behar dugu, gure bizikidetzaren osasuna mantentzeko. Literatura eta zinema dira gure gizarte ireki honetako erreferentzia narratibo garrantzitsuenak eta horregatik, Fundazioak arretaz aztertu nahi izan du nola tratatu den terrorismoaren fenomeno odoltsua eta nola landu diren terrorismoaren biktimak eta hiltzaileak gure sortzaile eta autoreek eratutako imajinarioan.

Mintegi honetan lehen hurbilketa bat egin nahi izan dugu ETaren terrorismoaren biktima eta hiltzaileen inguruan eratutako literatura eta zinema ekoizpenaren analisira.

Analisi hori abiapuntutzat hartuta, ikusiko dugu zein narratiba nagusitu den gure gizartean, biktimena ala hiltzaileena. Azkenean, biktimen tragediari begirada berritua eman nahi zaio, zeintzuk ez baitira subjektu pasibo soilak, "protagonistak" baizik, hitzaren zentzurik zinematografikoenean.

Beren heriotzaren esanahia eta hiltzaileek erailtzean bilatu zuten helburua hertsiki lotuta daude gure erakunde demokratikoen legitimotasunarekin eta gure Zuzenbide Estatuak defendatzen dituen baloreekin.